



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Neu naiz zerutik jaitsiriko ogia”

2021eko abuztuaren 8a
Urteko 19. igandea (B)

Joan 6, 41-51

Orduan, marmarka hasi ziren entzuleak, “Neu naiz zerutik jaitsiriko ogia” esan zuelako, eta zioten: Ez da, bada, hau Jesus, Joserren semea? Ez ditugu, bada, ezagunak honen aitamak? Nola dio, orain, zerutik jaitsia dela?

Jesusek ihardetsi zien: Ez ari marmarka zeuen artean. Ezin da inor niregana hurbildu, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu; eta neuk piztuko dut azken egunean. Honela esaten da profeten liburuan: Jainkoaren ikasle izango dira denak. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena niregana hurbiltzen da. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoarengandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

“Bene-benetan diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Neu naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia: beronetatik jaten duena ez da hilko. Neu naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duenak betiko bizia izango du. Eta nik emanen dudana ogia nire gorputza da, mundua bizi dadin emana”.

“Bene-benetan diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du”.

JESUSENGAN SINESTEKO BIDEA

Jose Antonio Pagola

San Joanen kontakizunaren arabera, Jesusek gero eta era argiagoan errepikatzen du Jainkoarengandik datorrela bera, betiko bizia ematen duen janaria guztiei eskaintzeko. Eta jendeak ezin jarraitu du hain eskandaluzkoa de hori entzuten, erreakzionatu gabe. Jesusen gurasoak ezagunak dituzte. Nolatan esan dezake Jainkoarengandik datorrela?

Ezin harritu da gutarik inor erreakzio horretaz. Arrazoizkoa ote da Jesu Kristogan sinestea? Nolatan sinetsi genezake gizon jakin horrengan Jainkoaren Misterio atzeman ezina haragitu dela, Herodes Handia hil baino zerbait lehenago jaioa den horrengan, hogeita hamargarren urte inguruan Galilean izan duen profeta-jardueragatik ezaguna den horrengan?

Jesusek ez die erantzun objektibo horiei. Jende horren fede-gabeziaren sustraira jo du: «Zer ari zarete kritikatzeko?» Oker dabilta Jesusen errotiko berritasunaren aurka egitean, Jesusen egiazko nortasunaz guztia dakitela uste izatean. Har dezaketen bidea erakuts diezaike.

Jesusek gauza jakintzat emana du hau: ezin duela inork beragan sinetsi, beragan erakartzen duen zerbait sentitzen ez badu. Egia da. Agian, Kafarnaumeko jende hark baino hobeto ulertzen dugu hori guk geure kulturatik. Izan ere, gero eta zailago gertatzen zaigu doktrina batean edo ideologia batean sinestea. Fedea eta konfiantza orduan erretzen dira gudan: on egiten eta bizitzen laguntzen digun norbait erakarle sentitzen dugunean.

Baina Jesusek gauza inportante batez ohartarazi ditu: «Ezin etorri da inor nigana, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu». Jesusengana erakartzea Jainkoak berak egiten du. Mundura bidali duen Aitak esnatzen du gure bihotza, Jesusengana hurbil gaitzean pozik eta konfiantzaz, dudak eta errezeloak gaindituz.

Horregatik, geure bihotzean Jainkoaren ahotsa entzuten saiatu beharra dugu, Jesusengana eramane gaitzan berari utziz. Aita horri, biziaren Kreatzaile eta gizakiaren Adiskide horri, eskolatu gaitzan leial utziz: «Aitak esana entzun eta ikasten duen oro, nigana etorriko da».

Jesusen aipatu baieztapena iraultzaile gertatu zaie hebrearrei. Bibli tradizioak esaten zuen gizakiak bere bihotzean entzuten duela Legea leial betetzeko Jainkoaren deia. Jeremias profetak honela aldarrikatu zuen Jainkoaren promesa: «Zuen barnean ezarriko dut nik neure legea eta zuen bihotzean idatziko».

Jesusen hitzek, berriz, beste esperientzia bat bizitzera gonbidatzen gaituzte. Kontzientzia ez da Jainkoaren Legea entzuteko leku ezkutatu eta pribilegiatu bat bakarrik. Geure izatearen barruenean, ona, ederra, jatorra, gizakiari on egitea, mundu hobea eraikitzea erakargarri dela sentitzen badugu, erraz sumatuko dugu Jainkoaren gonbita Jesusekin sintonizatzeko. Hori da biderik hobena harengan sinesteko.